

Zumeltzako (1) atsedean parkeetik aterako gara Dimaranzko errepidea hartu eta berehala beratu gurututzako dugularik, zelalain egazkintzako dagoen pistatik jarraitu eta honen amaieran eskuraintz doan pista edo aldaia hartuz. Harritutako aldaia nagusi honetatik alboetakoak alde batera utziz Arkaolarantz abiatuko gara.

30 minututan Arkaola baserrian izango gara. (2) Eorri garen pistatik zuzen egingo dugu aurrera eskuinera ateratzen den lehen pista albo batera utzi eta hurrengo bidegurutzean eskuinera eta zuzen gorantz egingo dugularik, aurrean dugun Estropozuetako gana jo arte. Hemen oraindiko gerra denborako kainolen paradak nomahi ikusleko aukera dugu. Gane honetatik Saibe aldera begiratuz ezkerrealdian dugun trokan Karabizarko txarkoa, Urubi, Txupitelarra Txikia eta Bekoerrea besteak beste. Guk aurrera egingo dugu Azuelako gana jo arte (pagadia eta artzaitxabola eskuin aldean). Hemendik ezkerretara egingez eta, apurtzo bat aurrerago ekarri dugun pistari jarraituz, Dantzaleku. (3) Ordu bat eta 5 minutu inguru igaro da.



Eskuagax mendigunea

Dantzaleku: Urkiolatik exherantz, San Antonioan arratarraren erromeri lekue. Pagodi eta zelai gunea, Abadiño eta Dima udalerrien mugan. Puntu honetatik zuzen egingo dugu aurrera Saiben magalerantz, aldaia alabrezko hesiz babesturik dugularik, eskuintetik -Urkiolatik- eta ezkerretik -Usurruk- datozen pistak atzean utziz. Bide honetatik aurrera egingo dugu Karabizaharko erreka gurutatu eta 100 bat metro aurrerago bide gainean Karabizahar (Karabie) jo arte. 20 minuto igaro dira Dantzalekutik.

Pistan jarraituko dugu, eskuintetik sartzen zaigun Saibe eta Urkiolara doan aldaia alboan utziz, bideari aurrera ekingez. Garbiune batera aterako gara, bertan eskuraintz -Sabera- esta ezkerretera eta beherantz, Txupitelarrera zuzentzen dan bidegurutzean aurkituko dugularik. Bidegurutze honen behealde eta ezkerrealdian Aitzixiki. Bi-



Pagoak

degurutze honetan, guk, eskuinera eta gorantz, Sabera (4) doan pista hartu eta 20 minututan gaina joko dugu. Dantzalekutik 55 minutu pasa dira.

Saibeko tontorrean beherantz eta zuzen Ilurriotzerantzako norabidea hartuko dugu, alabrada ondolik doan aldaia jarraituz: 15 minutu. Behin Ilurriotzen, (5) zelaigunean ezkerretara dagoen pista hartu eta berehala pista hau bitan banatzen denez eskuinekoa eta beherantz doana, Txupitelarrako zelala jo arte, ezkerretik eta goitik behera Saibe. Aitzixikitik datorren pista atzean utziz. Zelai honetan eskuintera, pihadian barrena zuzenduko gara, Kanteretara hurbiltzeko. Bertan harrobien arrastoez gain Usuru aldera begiratuz hagin eder bat ikusteko aukera izango dugu. Kanteretara ekarri gaituen bidea berri egingez zelaira itzuli eta Txupitelarrako gana joko dugu. 20 minutu Ilurriotzetik.

Txupitelarrako gane honetatik Eskua, Keixa, Olsatx, Urri, ... Berri zelaira itzuli eta eskuinera eta beherantz aurikusten dugun pista hartuko dugu, beheko toka, Ursatu (6) jo arte. Puntu honetan, Ormetako presara doan kanalaren hasiera ikusteko aukera izan ondoren, pistari ekingo digu. Lehen bidegurutzea, ezkerretera, Arkaola aldera doan alboan utziz, guk eskuinera egingez Mesilleko aldatza jaitsiko dugu Aitzorrotz, Behileku eta Arkaolako zelaitik zehar Zumeltzara abiatuko garelarik. 40 minutu Txupitelarrako tontorretik eta hiru ordu eskas Itreera puntutik abiatu garenetik, 9 bat kilometro egingez.

